

Literatura →

Fikzioaren argitan

Iritxe Esnaola

Iritsi zaigu eskuetara Asel Luzarragaren (Bilbo, 1971) azken eleberria, Txileko Araucanía erregioan, Temuco eta haren inguruetan kokatu duen narrazioa. Fikzioa da, bai, baina Txileko errealtatearen isla nabarmena ere bada. Hango gorbuenek maputxeen afera eta diskurtso ofizialari aurre egiten diotenei eman trataera azaltzen du egileak; baina, batez ere, egoera horren barruan kokatu dituen pertsonaiekin sakondu du, diskurtso propio sinesgarri jantziz bakoitza. Ez da kronika bat, literaturaren bitartez lau bizitzatan barnertzeko saioa da. Hain zuzen, pertsonaien ahotsak txandatan txandatan tartekatzeak ematen dio egitura narrazioari, lau perspektibatatik, lau ahots narritiboz. Protagonistak Jon euskalduna, Hugo maputxea, eta txiletar bi dira, Vero punka eta Omar Moya fiskala. Fiskalak, lur-jabe handien interesak babesteko eta maputxeen lurren okupazioa eta esplotazioa bermatzeko, estatuen fiskaltza gorpuzten du. Txilen

ohikoak diren azpikoak ageri dira eleberriko tramaren osagarri: gezurrezko lekukoak erabiliz atxiloketak bermatu, satorren bidez egoera bortitzak xaxatu, iritzirik publikoak bideratzeko prentsaren gezurren babesa izan (*El Mercurio*, *La Tercera*). Figura manikeotik ihesi, pertsonaia landua da Omar, arlo pribatuan —familia modelo *eredugarrian*— aurkezten zaiguna haren gogoeta, eta nagusiki, justifikazio saioekin.

Lau kapitulu edo atal ditu, eta bakoitza amets batek zabalzen du, maputxeentzat amets ei duten garrantziari keinu eginez, apika. Hugo Curiman gaztea da bigarren protagonistak, eta maputxeen mundu ikuskera —ezagutzen zaila— dakarkigu, naturak eta mitoelek lekua duten kulturaren sostengu. Maputxe idealizatu bat aurkezteko arriskua ekiditen du egileak. Landatik aldentu den indigena bere borroka aurkitu nahian dabil hirian eta okupazioan, bi munduen arteko kontraesanak (maputxeena eta txiletarrena) kapitalismoaren aurka batu nahirik. Haren ondoan Vero unibertsitateko ikasle punka dago, anarkis-

motik hurbil eta aldezkatu pentsamendu feministekin ziprztindua, akzioetan parte hartzen badu ere, sostengura eta sentimenduetara lotuago aurkezten dena. Lotua azken protagonistari, Jon Gorriti Landa euskaldunari. Atzean utzitako bizitza ezabatu, eta balio berrietara transformatzeko aukera iradokitzen du Jonen (indibidualismotik ekintza kolektibora iragan ahal izatea). Bide horretan, okupa etxeen eta anarkisten erreferentziak daude, baita gaztedi txiletarrenak ere. Kasu batzuetan, kultura txiletar eta maputxe-



‘GEZURRA ODOLETAN’

- **Idazlea:** Asel Luzarraga.
- **Argitaletxea:** Txalaparta.

ko tradizio, ohitura edo hitz zenbait azalpenik gabe ematen da, eta nago herrialdea ezezagun duenak egoki uler dezan testuinguru falta izan dezakeela. Bestalde, Jon euskaldunak dakarren sekretua ez azaleratzeko tentsio narratiboa ondo gordetzen du amaiera arte, eta, bidenabar, Verorekin duen harremanean isildutakoek zer kalte ekar dezaketen erakutsi.

Asel Luzarraga 2009ko abenduan atxilotu zuten, zenbait lehergai fabrikatzea eta eztanda araztea egotzita, azpizoko baten biktima Txilen. Badu esperientzia hartatik guztitik eleberriak, baina uste dut merzei duela lorratz biografiaren atzetik abiatzea bainoago, fikzioaren argitan irakurtzea eleberria. Kultura taldeetan errepara arazten du, txiletarren zenbait ezaugarri komun egoki adierazten ditu eta orrialdeak abailan iragaten dira, ondo dosifikatutako erritmoz. Badira konstante bi eleberriaren egilearen aldarri gisa ulertu ditudanak, pertsonaien gabezia pertsonalen gainetik altxatzen direnak: zapalkuntzen aurrean elkartasuna eta askatasun desireri fedea.



‘EGAN’

- **Argitaratzailea:** Euskalerraren Adiskideen Elkarte.
- **Zenbakia:** 2011-3/4.

Fito Rodriguez, Ur Apalategi, Luis Mari Mujika, Ander Iturriotz eta Patxi Salaberrik eginiko literatur azterketak bildu ditu, besteak beste, Egan aldizkariak bere azken zenbakian. Horieta gain, Antonio Maria Labaienek 1966an frantsesetik euskaratutako *Su ta gar* antzezlanaren ere jaso du.



‘ZAMORAKO APAIZ-KARTZELA’

- **Koordinatzaileak:** Angel Zelaieta eta Edorta Jimenez.
- **Argitaletxea:** Txalaparta.

1968 eta 1976 artean Euskal Herriak jasaten zuen errepresioaren aurka egiteagatik hainbat apaiz espetxeratu zituzten Zamoran, Espainian. Haien guztien testigantzez jositako liburua da *Zamorako apaiz-kartzela*. Eliza eta Estatuaren presondegia (1968-1976)



‘BETERRIKO LIBURUA 2011’

- **Argitaratzailea:** III Euskal Literaturazaleen Akademia.

Hiru elkarrizketa bildu ditu Beterriko Liburuak 2011ko zenbakian. Batetik, Mikel Hernandez Abaituarekin mintzatu da *Narrazio tailerra* saiakeraren gainean. Bestetik, Ana Urkiza elkarrizketatu du *Atzorako geratzen dena* aforismo liburuaz hipzide hartuta. Azkenik, Gerardo Markuleta idazle eta itzulitzaileari egin dio elkarrizketa.

↓ Haur eta gazte literatura

Haur-jaleen neska txatxa deliziusa

Haur-jale baten istorioa da hau, amaiera oneko istorioa, direnatan haur-jale aseगतzenarena: «Beti naiz goseak hila: / Badator neska, mutila. / Banoa bazkari bila. / Goseak ez nizan ehortz / behar nituzke ume bortz / jateko aho bete hortz».

Halako lan probokatzailearen atzean XX. mendeko egile go-raipatuenetarikoa bat dago, euskal letretan *Hiru bidelapurak* eta *Otto* liburuei esker ezagutzen duguna. Kontakizunak bi lan horien ezaugarriak erakusten ditu. Esaterako, *Hiru bidelapurak* obran bezala, heroia



‘ZERALDAREN ERRALDOIA’

- **Egilea eta ilustratzailea:** Tomi Ungerer.
- **Itzulitzailea:** Itxaro Borda.
- **Argitaletxea:** Ikas.

gaizkileak onbidera ekarriko dituen neskato bat da, eta, *Otto* hartan bezala, zoria da gertaera guztien giltzarri, errealtate bidegabearen salaketarekin batera. Bost bat urtetik aurrerako haurrentzako liburu ilustratu hau ez da nolana hikoia, ezaugarri asko ditu aparteko bihurtzen dutenak, aipagarrienak testuaren eta irudiaren arteko oreka zein irudien adierazkortasuna dira. Haurrak bitartekaria behar du ipuinaren fiabardura guztiez jabetzeko, baina —hau bai paradoxa—, ilustrazioen behaketa hutsarekin kontakizunaren muinaren jabe egingo da.

Izan ere, ilustrazioek istorioaren gakoak zehaztu eta bigarren mailako informazioa ere ematen dute, baina haurrak bere ondoan heldu bat behar du ipuinaren jabe osoki egiteko eta —ez da hau garrantzi gutxiakoa— kontaketak dituen tentsio-gu-neak babesean gainditzeko. Bordaren itzulpenak Ungere-rron ironia fina nabarmen izan du, eta obra are deliziusago bihurtzen. ■ **IMANOL MERCERO**

Hau da ezusteko atsegina!

Hau da ezustekoa hartuko duzuna liburu hau irakurtzen baduzu! Niri, bederen, halaxe gertatu zait. Denok bezala Pinotxoren abenturen berri baren, txikitako istorio laburtu haietan, telebistan, pintatzeko koadernotxo haietan guztietan ezagutu bainuen sudurra hazten zitzaien txotxongiloa.

Ba ez. Benetako istoriotik oso urrun nengoan. Eta ez dut esan nahi orain ezagutu dudana Pinotxo erabat gustatu zaidanik. Kontua da Pinotxo berri bat ezagutu dudala —benetako Pi-



‘PINOTXOREN ABENTURAK’

- **Idazlea:** Carlo Collodi.
- **Ilustratzailea:** Jokin Mitxelena.
- **Itzultzailea:** K. Biguri, G.K. Goikoetxea eta A. Pontesta.
- **Argitaratzaileak:** Alberdania, Erein eta Igela.

notxo— eta orain arteko hura baino askozaz interesgarriagoa iruditu zaidala. Noan harira.

Pinotxoren abenturak Collodi abizeneko kazetari batek idatzi zituen, eta atalka argitaratu italiar egunkari batean XIX. mendean. Denera 36 atal. Testuak garai hartako haurren bizimoldea du inspirazio iturri, eta, esan beharrik ez dago, garai hartako haurrak kale gorrian bizi ohi ziren. Eta ezaugarri horrek obraren zer-nolako guztiak baldintzatzen ditu.

Obra arina da, umorea eta arriskua dosifikatuz erakia, amaierarako suspensea gordetzen duena, eta moralizantea, haurrei txintxo izatearen onurak eta bihurri izatearen kalteak azpimarratzen nekutzen ez diren horietakoa. Horregatik, nik uste, istorioa kolpe bakarrean baino, atalka hobeto irakurtzen da, zortzi-hamar urtetik aurrera.

Azkenik, goraiatu itzulpen lan bikaina dela, euskara arin eta aberatsean egina, eta hala-ko altxoraren jabe Galtzagorri elkartearen Klis-klasikoak ekinerari esker egin garea.

■ **IMANOL MERCERO**